

# 1. Balorezko proposamena

Gure enpresa bidaia agentzia bat izango da eta Europako hiriburuetan eta Mediterraneo inguruko lurraldeetan eskainiko ditugu bidaiak. Gure berezitasuna aipatutako tokietan bertako pertsona bat bezeroei lekua erakusteko prest izango dugula da. Gainera asistentzia pertsonala eskaintzen dugu bidaietan zehar dena ondo atera dadin. Web orri bat ere izango dugu informazioa digitalki eskuratu ahal izateko.

Gure bidaia agentzia aukeratzen dutenek, edozein egunetan bidaiatzeko aukera izango dute eta erraztasun osoa eskainiko diegu. Adibidez, autobusa edo taxia aireportura joateko. Aireportuan autoa aparkatzeko buru haustekak konponduko lituzke azken zerbitzu honek.

